



Usurbilgo Udalak parte hartzeko proiektu berri bat jarri zuen martxan. Guztion artean hezkuntza-eredu bateratu bat bilatu nahi izan dugu; usurbildarren etorkizuneko hezkuntza-eredua.

Hezkuntzako parte-hartze prozesuan adostutako dokumentua eskuragarri dago:
Udarregi Ikastolan • Zubietako eta Aginagako eskola txikietan • Usurbilgo Udalean
Euskarri digitalean www.usurbil.net webgunean



Usurbilgo herri-hezkuntza proiektu bateratua



Guztiontzat artikulatutako sistema izango da, partaidetzan oinarritua eta guztion eskura egongo dena.



Usurbilgo herri-hezkuntza proiektu bateratua

➔ **Integratzailea**
eta ez-baztertzaila

➔ **Berdintasunean oinarritua**

➔ **Inklusiboa**

➔ **Emozioen hezkuntzan oinarritua**

Pertsona **LIBREAK** izatea sustatuko du

➔ **Dogmak** kuestionatzeko gai direnak

➔ **Espiritu kritikokoak**

➔ **Beren kabuz** bizitzeko eta pentsatzeko gai direnak

➔ **Autonomoak** eta ekintzaileak

Euskalduna eta euskaldun eleanitzak sortzen dituen.
Euskalduntasunetik abiatuta, kultura unibertsalerako bidea egingo duena.

USURBILi lotua eta **USURBIL**en errota

Euskal Herriari
irekia
munduari

Sarea eta antolaketa

- Sare moduan egingo du lan
- **Elkarrekin** eta elkarlanean ikuspegi koherentea eraikiko da.
- **Ekintza integratuak** bultzatuko dira, herriko dinamika sustatuko dutenak.
- **Gurasoen** eta ikasleen inplikazioa indartuko du, denak norabide berean aritzeko.
- **Finantzaketa publikoan** oinarritutako eskola izango da eta herriko familia guztien ikasleak onartuko ditu.

➔ **Hezkuntza-mahaia**

Hezkuntza formaleko ikastetxeek osatuko dute:

HAUR ESKOLAK

IKASTOLAK

ESKOLA TXIKIAK

- **Guraso, ikasle** eta irakasleek parte hartuko dute
- **Hezkuntza ez-formalarekin** harremanak ezarriko dira, landuko diren gaien inguruko eragileei hezkuntza-mahaira deituz.
- **Ekintza** eta proiektu integratuak landuko ditu.
- **Sistema barruko** eskola, ziklo eta etapa aldaketak bereziki landu eta erraztuko dira.

Oinarri pedagogikoa

Prozesuak jarriko dira martxan eskolekin eta oinarri pedagogikoekin zerikusia duten Usurbilgo hezkuntzako beste elkarte talde eta abarrekin.

- **Haurra** edo gaztea jarriko du betiere erdian. **Irakasleak bidelagunak** izango dira.
- **Eskola zertarako** behar dugu? galderan oinarrituta: zer irakatsiko den definituko eta zehaztuko da.
- **Arlo** eta ikasgai guztiek garrantzi berdina izango dute
- **Motibazioa** landuko du.
- **Ikasleen** behar bereziei erantzungo dio.

➔ **Formakuntza eta prestakuntza**

- Hezitzaileen formakuntza eta prestakuntza bermatuko da.
- Irakasleen etengabeko prestakuntza garai eta behar berrietara egokituko da.
- Haur eta gazteekin lan egiten duten profesional guztiak norabide beran ariko dira.
- Gurasoen prestakuntza lehenetsiko da eta horien parte-hartzea bultzatzeko bideak landuko dira.